

AKTIBOAK BABESTEKO POLITIKA

Finantza-tresnak eta bezeroen fondoak babesteko baldintzak

- 1.- Kutxabankek balore-kontuak erregistratzeko eta mantentzeko aplikatzen duen prozedurari esker, entitatearen finantza-tresnen eta bezeroen finantza-tresnen artean bereiz dezake eta, halaber, bezero bakoitzaren aktiboak zeintzuk diren jakin dezake inolako errakuntzarik gabe.
- 2.- Kutxabankek finantza-tresnen barne erregistroen zehaztasuna bermatzen du egoki deritzon bateratze-prozesuen bidez, bezeroen eskubideen babesa bermatzeko.
- 3.- Kutxabankek, kasu batzutan, bezeroen finantza-tresnen gordailua hirugarrenen batean irekitako kontuetan egiten du. Horrela bada, Kutxabank, arretaz eta ardura osoz arituko da erakunde horiek hautatu, izendatu eta berrikusteko orduan, bezeroen finantza-tresnak beste erakunde batzuetan jartzen dituenean.
- 4.- Kutxabankek ez du finantza-tresnak beste herrialde batzuetan jarriko, herrialde horiek araudi desberdina edota berrikuspen espezifikoa badute edota euren legeriak ez badu finantza-tresnen hirugarrenen edukitze-baimena eta zainketa arautzen; bai ordea, 217/2008 Errege Dekretuko 42. artikulua 2. atalean jasotzen diren baldintzak betetzen direnean.
- 5.- Kutxabankek aktiboak babesteko politika betetzeko beharrezkoak diren kontrol-mekanismoak definitzen ditu eta, era berean, bezeroen aktiboaren balioaren eta aipatutako aktiboekin zerikusia duten eskubideen galera eta murrizketa arriskua gutxitzeko egoki diren neurriak azaltzen ditu.
- 6.- Urtero, Araudia Betetzeko arloa arduratuko da, aktiboak babesteko politikaren mantentzeaz.
- 7.- Kutxabankek aktiboak babesteko politikaren inguruko alderdi garrantzitsuenei buruzko informazioa eskainiko die bezeroei bulegoetan eta web orrian.